

BERGARAKO UDALA
IGELTSERO OFIZIAL PLAZA
AZTERKETARAKO OHARRA

Oposizioaldiko lehenengo ariketa: bi ariketa motak osatzen dute eta datorren urtarrilaren 12an egingo da, iragarri zen moduan.

Horien inguruan, hainbat azalpen egin eta jakinarazten dira:

1.- Obra eta Zerbitzuetako ofizial igeltseroaren lanpostuaren eginkizunekin, gaitasunekin edo/eta eranskinean jasotako gaiekin zerikusia duten galderei erantzun beharko zaie eta aukerako erantzunak dituzten galderak izango dira (test erakoak):

1.- 19 galdera izango dira guztira; horietatik 4k erreserba-izaera izango badute ere, 19 galderei erantzun behar zaie.

2.- Gaizki erantzundakoek ez dute penalizaziorik izango.

2.- Obra eta Zerbitzuetako ofizial igeltseroaren lanpostuaren eginkizunekin, gaitasunekin edo/eta eranskinean jasotako gaiekin zerikusia izanik hainbat buruketei erantzun beharko zaie.

1.- 4 izango dira guztira.

2.- Ariketa honetan erantzuterakoan, letra argia erabili behar da, irakurtzeko modukoa; izan ere, zalantzazkoa edo irakurri ezinekoa bada, erantzuna baliogabetzea ere ekarri dezake.

3.- Ariketaren denbora

1.- Bi atalak egiteko izango den denbora da: 90 minutukoa gehienez.

4.- Puntuazioa

1.- Atal bakoitzari emandako puntuazioa azterketa hasi aurretik jakitera emango da egunean bertan.

Bergara, 2022ko urtarrilaren 10a

Epaimahaiko idazkariak

